



## ELKARRIZKETAK

Hasiera » Elkarrizketak » Anjel Lertxundirekin solasean

### Anjel Lertxundirekin solasean

Ostirala, 2016-03-11

**Anjel Lertxundik (Orio, 1948) bi liburu argitaratu ditu oraintsu. Bata, *Zu*, minbiziaren aurkako borrokaz eta oro har bizitzaren udazkena diharduen dietario/kronika, Erein etxearen eskutik. Bestea, Eugenio Montale poeta italiarraren poema-antologia, Susaren eskutik, Munduko Poesia Kaierak bildumaren barruan. Bieiei buruz hitz egin dugu Lertxundiren elkarrizketa honetan.**



“ Gero eta zailagoa izango zaigula gure gaurko errealitatea ulertzea betiko forma literarioekin, edo betiko forma literarioak izanda ere, izenez behintzat, horiek erabat irauli gabe.



“ Askotan biluztea kostatzen da zailea eta gero irakurleak hori eskertzen du



**Liburuan behin baino gehiagotan azaltzen dira argitaratzeari buruzko zalantzak. Zergatik baiezkoaren alde, azkenean?**

Prozesuaren erdialdean dagoeneko argi geneukan argitaratuko genuela. Nik uste dut bi prebentzio daudela: batetik, diskrezioarena, baina hori berehala gainditzen da. Gero bazegoen elementu filosofiko-literario bat, hain zuzen, horrelako lan gehienak post-mortem argitaratzen direla. Horretan emazteak eman zidan argia: "ari zara denbora guztian gaixoaldia ere bizitza dela esanez; orduan ez duzu hau ni hildakoan argitaratuko, ezta!" Kasu horretan porrot baten istorioa kontatuko nuen. Berez gaitza bada porrot bat, baina aldi berean bada bizitzak dakarren egoera bat, besterik ez.

**Era berean, behin baino gehiagotan aipatzen duzu ideia, *ars vivendi* bat dela hau.**

Liburuarekin hasi nintzenean buruan neukan Cesare Pavese-ren liburu bat, *Il mestiere di vivere*

gehien.

“ Sufrimenduak ez du miraririk egiten.

“ Ni ez naiz fededuna baina natorren tokitik nator, eta hark erantsi zidan guztia kentzen lan handia egin behar izan dut. Badakit nire ahalegina ez dela nahikoa, ez delako bakarrik etxean jasotakoa, baizik eta gizarte oso batek, mendeetan eta mendeetan, zure estruktura mentalean sartutako zerbait.

“ Montale itzultzerakoan

[Bizitza hizpide]; bere dietarioa. Liburuaren funtsa da, azken batean, bizitza landu behar dugula, eta ez heriotzarako prestatu. Etorriko da nahi ez baldin badugu ere. Beste ikuskera bat da, oso ezberdina, eta erlijioak inondik inora ematen ez duena, hain zuzen ere, erlijioa kastrantea da zentzu horretan.

Jarduten dugu denbora guztian bizitza ulertu nahian eta jarduten dugu, batez ere, filosofiaren, edo literatura eta arteen bidez, jakinaren gainean ez dugula ulertuko. Hain zuzen ere, jakinaren gainean ez dugula ulertuko jardute hori da zentzu nagusia. Ez dut ulertuko, baina nik ez dut etsiko ulertzeko ahaleginean, niri oso baliagarria zaidan zerbait bilatzeko ahalegin horretan.

**Fikzioa idatzi izan duzu gehien. Zer-nolako aldea dago eleberri bat eta *Zu bezalako liburu baten artean, idazketa-prozesuari erreparatuta?***

Egitura berdintsuarekin, fragmentuekin eta adabakiekin egindako beste liburu bat atera nuen, *Eskarmentuaren paperak*. Badute antzik, hura izan zen bide honetan egindako lehenengo ahalegina. Kurioski, orduan ez nuen inolako arazorik izan nire inguruan eta abar, baina hartan ere

— — **ITZULIZETAKOAN**  
nire kezka  
handiena zen ea  
unibertsitateko  
irakaslea  
nagusituko ote  
zitzaion idazleari,  
baina zorionez uste  
dut idazlea  
nagusitu dela  
hautaketan.

“ Nire  
hizkuntzan  
planteatu behar  
ditut dauzkadan  
arazo narratiboak  
eta estilistikoak.  
Jakinaren gainean  
banago hemendik  
bi urtera lan hori  
gaztelaniara  
itzuliko dudala,  
dauzkadan arazo  
horiek aplazatu  
ditzaket.

parte handi bat eskaini nien gai hauet, nainz eta beste ikuspegi batetik, oso material ona delako hausnarketarako eta literatura egiteko. Handik hona etortzea nahiko erraza egin zait.



Badago, baita ere, gero eta garbiago daukadan beste hausnarketa literario bat, alegia, gero eta zailagoa izango zaigula gure gaurko errealitatea ulertzea betiko forma literarioekin, edo betiko forma literarioak izanda ere, izenez behintzat, horiek erabat irauli gabe.



### **Txatal horiei, ordea, zure zutabeen antza hartu diet behin baino gehiagotan.**

Zutabeak aipatzen dituzula, badira bi edo hiru testu zutabe izandakoak, gero errekonbertitu egin ditudanak liburuan sartzeko, adibidez, Jack Londonen ipuinari buruzkoa, eskimalarena.

Fragmentu batek garapen handiagoa ez duenean, ez duenean egitura narratibo oso bat eta pieza bakoitza bestearen mende dagoenean, pieza askok eman dezakete beste zerbaiten itxura. Txatalek posible egiten dute, baita ere, prosa poetikoa egitea momentu jakin batzuetan, nobela batek aukera ematen ez duen bezala behintzat, guk daukagun nobelaren ikuspegitik.

Askoz ere hibridoagoa da, aukera asko ematen ditu, adibidez, aipuak erabiltzeko. Zuk nobela batean aipu bat erabiltzen duzunean, hor ipintzen duzu, besterik gabe, ondo dator kizulako zerbait esateko. Baina, hemen, aipua da tira egiten dizun soka bat ere, beste elementu berri bat abiarazteko. Aipua bera erabil daiteke baliabide literario bezala. Gai berari buruz baldin badauzkazu bi edo hiru aipu oso onak, eta elkarren artean ezberdinak direnak, hirurak jartzen badituzu elkarrekin, zuk ezer erantsi gabe jada eman diozu laugarren bide bat irakurleari, ekintza txiki horren bidez.

### **Hitz egin dezagun orduan liburuari hasiera ematen dion aipuaz. Oier Guilanena da: *minarena naiz zorionarena beste.***

Abiatzeko aproposa iruditzen zitzaidan, azken batean laburbiltzen duelako liburua zer den, eta nik oso azkar erabaki nuen aipu hori erabiltzea, liburua bera bukatu baino dexente lehenago.

**Egia da liburuan asko aipatzen dela, zoriontasunak eta gaitzak ez dutela zertan kontrajarriak izan. Egoteko toki ona iruditzen zait, baina norbera kapaz izango ote den egoerari horrela heltzeko...**

Liburua idazten ari nintzela, askotan pentsatu dut kontu horretan eta, Gerardo Markuleta gaztelaniara itzultzen ari den honetan, bertsoia berrikusten ari naiz eta berriro etorri zait burura. Momentu honetan egoera horretan dagoen pertsona bati laguntzen ari naiz, eta nik esaten dudan *ars vivendi* hori, jakin nahi nuke ea ni neu banintz bestearen tokian dagoena, ea nik erreakzionatuko nukeen horrela.

Liburuan aipatzen dudan Anatole Broyardek esaten zuen bizitzan laguntzen digun estilo berak lagundu beharko ligukeela gaixotasunaren aurrean ere. Ados nago horrekin.

### **Liburua idatzi eta argitaratzeko unean pentsatu duzu kanpora begira, beste jende batzuentzat onuragarri izan zitekeela?**

Hori liburua irakurri zuten lehendabizikoek —lagunek— esan zidaten, horretan ez nuen pentsatu. Nolanahi ere: liburuak gutxienez bi fase inportante izan ditu. Lehendabizikoa etxerako, apunte intimo batzuk, intimoak zentzu zabalenean, baina zuk gobernatzeko, emaztearekin konpartitzeko, eta hortxe geratzen direnak. Orduan emaztea dut irakurle bakar.

Bigarren momentu bat dago argitaratzea pentsatzen duzunean. Hori erabaki aurretik idatzitako pasarteetan ez dago ezertxo ere zuzenduta, halakoak dira. Hori bai, batzuk erantsi dizkiot, bestela hutsune handi batzuk sortzen baitziren kontakizunaren linealtasunean.

Lehenbiziko parteak kointziditzen du bibentzia handienak izaten ari zarenekoarekin: ospitalerako joan-etorriak, oraindik diagnostiko zehatza eman gabe dagoenean... Hor kontakizuna askoz nagusiagoa da. Liburua egiteko erabakiarekin kointziditzen du atsedetak, bi zentzutan, atsedetak fisikoak, badirudielako gaitza kontrolpean dagoela, eta atsedetak psikologikoak, jada erabat onartua daukazulako gaitza, ez da hasierako susto hura, non zauden ere ez dakizunekoa. Bigarren partean hausnarketarako toki gehiago dago. Gure bizikizunen kontakizuna, hasiera batean, askoz kanporakoagoa da, gertatzen ari zaigunari buruzkoa, eta bigarrena barruragokoa, gertatzen ari zaigunari buruz hausnartzekoa. Ezinbestean gertatu da hori.

### **Gaitza onartzeko bide horretan badago pasarte gako bat, Zuk "zergatik niri?" galdetzeari utzi eta "zergatik ez niri?" galdetzen duenekoa.**

Oso garrantzitsua da aurreko bizitza nolakoa izan duzun. Ez baldin baduzu bizitzaren eta

gizateriaren zentzu elkartasunezko bat, despotrikatzen duzu, malaostiatzen zara eta dena da injustizia. Baina besteei gertatzen zaienean ez zaizu injustizia iruditzen?

Imanol Zurutuzak emaztea hil ondoren idatzi zuen liburu bat, *Errautsera arteko sugarra*, Zu-n aipatzen dudana. Ohar horretan azaltzen da nola, sufrimenduak pentsarazten dizula eta abarrak aipatzean, emazteak esaten zion ezetz; nola emazteak gaitzean pentsatzen eta esaten zuena lehenago ere pentsatzen eta esaten zuen, beste modu batera izan arren. Sufrimenduak ez zion ekarri berak lehendik ez zeukanik, bere pentsamendu eta buru-egiturara. Sufrimenduak ez du miraririk egiten, alegia.

### **Gustura geratu zara emaitzarekin?**

Hasteko, uste ez bezalako harrera izaten ari da. Batetik, oso gai zaila da irakurlearentzat, bigarren, euskal publikoa kontuan hartuta, ez da gai bat gurea baino belaunaldi gazteagoentzako, urruti ikusten dute; guk ere oso urruti ikusten genuen moduan, bestalde. Alde horretatik gutxi gorabehera imajinatzen nuen zer izan zitekeen harrera eta nolakoa. Baina gero, nire harridurarako, oso harrera handia izan du. Uste dut nire ibilbide guztian, eta 40 urte daramazkit idazten, ez dudala hainbeste mezu jaso, liburu honekin bezala, hain epe laburrean, gainera.

### **Zergatik izango ote da?**

Batzuetan da beste pertsona batzuek bizi izan dutelako egoera hori eta liburuak berriro dielako, lagundu dielako... Askok eta askok esker onekoak dira, biluztu izanagatik. Askotan hori izaten da gehien kostatzen dena eta gero irakurleak gehien eskertzen dizuna.

### **Aurkezpenean esan zenuen egoera honek talaia-aldaketa bat ekarri dizula. Bizitzari errepassoa egiteko aukera ere?**

Uste dut horrelako egoerek dogmatismoa kentzen diotela giza bizitzari. Eta dogmatismoa aipatzen dudanean, beste aldetik begiratuta, esan nahi dut malguago egiten zaituztela. Azkenean, bizitza hain da ederra eta hain da putakumea... Bandeatu behar duzu batean eta bestean. Orduan, bizitzari buruzko ikuspegi gero eta itxiagoa izan, zailtasun handiagoak dituzu bandeatzeko. Malguago izan behar duzu gauza txikietan ere. Eramangarriago izaten ahalegindu behar duzu, zeure buruaren osasunez eta baita ere zure ingurukoaren osasunez.

Gero, gauza praktikoetan, ez dago dudarik. Lehentasunetan eta abar, jada idazle moduan, nire irakurketetan eta beste, edadeak egiten du, baina edadeaz aparte... Ni beti ibili izan naiz prentsaren inguruan eta ahalegindu izan naiz aktualitate literarioa segitzen; orain berriz ez hainbeste. Badakit hori edadea ere izan daitekeela, baina uste dut hori baino gehiago dela gertatzen ari zaidana.

### **Medikuntzari humanismo pixka bat falta zaiola aipatzen da oharretako batean. Liburu hau ez ote doan ildo horretan...**

Liburu hau baino lehenagotik neukan kezka. Ezagutu ditudan medikuntza-irakasleei eta errektore bati baino gehiagori esan diet ez dudala sekula santan ulertuko nola medikuntza-fakultatean ez duten irakurtzen, adibidez, Thomas Mannen *Mendi magikoa*, Albert Camusen *Izurria*... Aski da horrelako liburu batzuk irakurtzea zaletzeko eta beste ikuspegi bat izateko. Medikua beti dabil bere ikuspegi teknikitik, normala den bezala, hori egin behar du gainera, baina ikuspegi horrek oinarri kultural bat ere baldin badauka, kulturala zentzu zabal batean, bada hainbat hobe.

### **Oso banaketa zurruna ezartzen da bi esparruen artean, oro har.**

Gauza bera gertatzen da zuzenbidearekin ere. XX. mendeko literaturan, bi mundu-gerrak direla-eta, medikuntzari buruzko literatura sekulakoa da, eta justiziaren ikuspegitik ere, giza eskubideen haritik eta abar... Abokatu batek horretaz ezertxo ere ez ezagutzea, ezta izenez ere, niri harrigarria egiten zait.

### **Suizidoa eta eutanasia ere agertzen dira hainbat oharretan, estigma kendu nahian eta, horrekin lotuta, erlijioaren zamatik ere badago zerbait.**

Suizidioari buruzko nire lehen oroitzapena da lehengusu bat, ni baino dexente zaharragoa, nik 14 urte inguru nituenean eta berak 27 inguru, suizidatu egin zela. Familian ez dugu horretaz asko hitz egin, eta galdetu ere ez duzu galdetzen, baina hor atzean geratzen zaizu.

Gero bost bat lagun, tratu dexente izandakoak, suizidatu dira, eta jakin dut zenbat sufrutura hartu zuten erabakia. Baina ez baita hori bakarrik, astero-astero matrakarekin dabilta, zenbat jende hil den istripuetan eta aldi berean badakit astero-astero gehiago direla suizidatu direnak, baina

horretaz ez da txintik esaten. Gizartean gertakari bat dago, aipatu ere egiten ez dena. Badakit gai horrek ez duela hainbesterainoko tabua lurralde protestanteetan; bueno, erlijioarentzat beti izango da gai zail bat, baina herrialde katolikoetan nabarmenagoa da. Isiltasun horrek kabreatu egiten nau. XXI. mendean esaten dugu gure gizartea sekularizatu dela eta gure gizartea laikoa dela... bai zera laikoa!

Ni ez naiz fededuna baina natorren tokitik nator, eta hark erantsi zidan guztia kentzen lan handia egin behar izan dut. Nahi dudana da, gutxienez, parean jartzea, eta badakit ez dudala lortuko, nire ahalegina ez delako nahikoa, ez delako bakarrik etxean jasotakoa, baizik eta gizarte oso batek, mendeetan eta mendeetan, zure estruktura mentalean sartutako zerbait. Hori erabat desegitea nekeza da: bizitzari buruzko pentsamendu magikoa, halabeharraren interbentzioa... hain dauzkagu errotuta.

**Itzultzaile aritu zara oraintsu ere, Eugenio Montale poeta italiarraren antologia bat prestatu duzu MPK bildumaren barruan. Nolatan animatu zinen eta zergatik aukeratu zenuen poeta hori?**

Kaiera bat prestatzea eskaini zidatenean *Paper festa* liburua bukatu berri nengoen, erabat libre



etxeko gorabeherak kenduta, eta pentsatu nuen halako lan batek on egingo zidala, ez baitzen, ustez, hainbesterainoko lana. Esaten dizute 1.600 lerro eta pentsatzen duzu ez dela asko, baina gero kontatzen hasten zara eta...

Nik itzuli izan dut, baina nire ariketa moduan, batez ere idazten hasi berritan. Gogoratzen naiz ibili nintzela García Márquezen *La hojarasca* euskaratzen eta Córdazarren batzuk ere, batez ere estiloa trebatzen joateko. Gazteren bat etortzen bazait idazten hasi nahi duena, eta aholku eskatzen badit, ez dit eskatuko, baina eskatuko balit, esango nioke itzultzeko, bere gobernamenturako bakarrik bada ere, asko ikasten baita itzulpenarekin.

Montalerekin badaukat afinitate bat. Bere garaian literaturako irakasle nintzenean, bi hilabete-edo eskaintzen nizkion Mallarmé-ri. Gero, oso berandura ezagutu nuen Montale eta pentsatzen dut Montale bat egon dadin Mallarmé batek egon behar izan zuela, muturreraino eramanda. Montaleren lehenengo liburua, *Ossi di seppia* [txibi-hezurak], oso maite dut, eta horrelaxe erabaki nuen.

Liburu horrekin badut istorio txiki bat. Niretzat oso metafora polita da. Txibi handien hezurak nahiko bigunak dira eta guk txikitari hondartzan jasotzen genituen, eguraldi zakarrak zirenean. Eskolan kaligrafia egiten genuenean, tinta itsatsi egiten zen eta lumaren punta herdoiltzen zuen. Orduan, garbitzeko, hezur haiek erabiltzen genituen. Horra metafora, nola zakarrak balio dizun gauzak egiteko.

Hondakinez asko hitz egiten du Montalek, eta gero *arte povera* hasi zenean, 70ko hamarkada inguruan edo, artista haiek beren aitaponteko espiritualtzat jo zuten. Horiek teoriara eraman zuten kontua, baina uste dut azken batean denok egiten dugula hori hondakinekin, edo bazter gelditutakoarekin, edo inork erreparatzen ez dion kontu sotilekin: aprobe txatu, gureganatu eta literatura egiten dugu.

### **Zer irizpide hartu duzu kontuan poemak hautatzerakoan?**

Ez da adituen hautaketa bat, adituek aukeratuko bailituzkete hasierako poemak izango lirateke batez ere, hermetikoenak, sinbolismoaren bidetik doazenak. Eta konprometituagoak-edo, mundutik hurbilagokoak, kanpo utziko lituzkete, nolabait hasierako Montale bakarrik balitz bezala Montale.

Niri asko interesatzen zaizkit bigarren partekoak ere, uste dut kalitate handikoak direla, uste dut ezin direla horrelakoak idatzi aurrekoak egin gabe. Destilatuagoak dira, eta, aldi berean, ironikoagoak. Pentsatzen nuen irakurleari kalitatea eskaini behar zitzaiola, baina baita ahalik eta kaleidoskopio zabalena ere. Ironiaren eta adar-jotzearen inguruan dabiltzan ale horiek ere ekartzea inportantea zen Montaleren irudi oso bat emateko. Hori izan nuen kezka handiena, ea unibertsitateko irakaslea nagusituko ote zitzaion idazleari, baina zorionez uste dut idazlea nagusitu dela hautaketan.

### **Honezkero ez da izango estiloa trebatzeko, baina zer eman dizu itzulpen-lanak?**

Bueno, beti ikasten dira gauzak, zorionez. Urte asko daramatzazunean idazten, bizio asko dituzu, eta lotzea beste baten testura eta hura errespetatzen ahalegintzea, ahalik eta fideltasun handienarekin baina baita ausardiarekin ere...

### **Zer harreman duzu poesiarekin?**




Nik idatzi nituen lehendabiziko gauzak poesia izan ziren, 16-17 urterekin eta gaztelaniaz. Nik poesia asko irakurtzen nuen garai hartan, gero garai batean ez eta orain berriro bai. Orduan, nire ahots bat-edo bilatzen nuen, eta uste dut bilaketa hark egin ninduela idazle, hein batean. Orain, poesia idazten saiatzen naizenean, euskaraz, ez dut ahots hori topatzen, inpostatua iruditzen zait. Adibidez, Montalerean bai, itzulpenean bai aurkitu dut ahots hori. Baina nik egiten dudanean ez. Pedantea egiten zait egiten dudana, lotsatu egiten naiz. Uste dut izan daitekeela lehendabiziko esperientzia estetiko, genero horretan, beste hizkuntza batean egin nuelako.

### **Azkenik, itzulpenaren beste norabiderari erreparatu nahi nioke. Ez dituzu zeuk itzultzen zure obrak. Zer dela-eta?**

Erabaki irmoa da. Nire planteamendua da: nire hizkuntzan planteatu behar ditut dauzkadan arazo narratiboak eta estilistikoak. Jakinaren gainean banago hemendik bi urtera lan hori gaztelaniara itzuliko dudala, dauzkadan arazo horiek aplazatu ditzaket, eta orduan itzulpen hori ez da itzulpen bat, baizik eta bertsio bat. Zilegi da, guztiz zilegi, baina niri ez zait interesatzen, niri interesatzen zait euskaraz egitea, itzultzen ez bada ere nahiago dut horrela egitea.

Beste kontu bat. Irizpide hori muturrera eramanez gero, ez nuke euskaraz publikatuko euskaldun munduarentzat bakarrik den obrarik, beste publikoari inolaz ere interesatuko ez zaion lanik — adibidez, *Letrak kalekantoitik*—, baizik eta itzulgarriak bakarrik. Itzulgarriekin bakarrik ez du funtzionatzen literaturak, etxerako *pro domo* bakarrik diren obrak ere behar ditugu. Eta zeintzuk diren horiek? Zure hizkuntzaren beraren baitakoak direnak.

## Utzi zure iruzkina

	<input type="text" value="Izena"/>		<input type="text" value="E-posta"/>
	<input type="text" value="Osatu kanta:"/> "Hegoak _____ banizkio, nirea izango zen" (derrigorrezkoa, spam-aren kontra)		
<input type="text" value="Idatzi zure iruzkina"/>			
<input type="button" value="Iruzkina bidali"/>			

[AGENDA](#) [ALBISTEAK](#) [ELKARRIZKETAK](#) [AMUAK](#) [KOMUNITATEA](#) [IRAKURLE TALDEEN MAPA](#) [BIDEOAK](#) [ARTXIBOA](#) ▾

[HARREMANETARAKO](#)

[LAGUNTZAILEAK](#)

Oier Guillan & Danele Sarriugarte & Imanol Ubeda

[hitzenuberan@gmail.com](mailto:hitzenuberan@gmail.com)



Gipuzkoako Foru Aldundia

## **HITZEN UBERAN • EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA HARREMANETARAKO**